Oinarritzko karakterizazioak, hondakina epe luzera segurtasunez tratatu ahal izateko beharrezkoa den informazio guztia biltzean datza, bai hondakinari berari buruz (hondakin mota eta jatorria, konposaketa, hezetasuna, pHa eta bestelako ezaugarriak, behar direnean) baita azpiegiturretan duen portaerari buruz ere. Fase honetan, halaber, gehieneko balio-mugei dagokionez ebaluatuko da hondakina, eta adostasun frogetarako aldaera nagusiak antzemango dira, neurtu beharreko osagai kopurua murriztuz erraztu daitekeen begiratzuz.

Hori horrela, erabiltzaileek baimen eskaera aurkeztu beharko dute derrigorrez. Eskaera horretan, beharrezko laginketa eta analisien datuak adieraziko dira, laborategi eskudun batek eginak; hau da, Industriako Kalitate eta Segurtasunerako Azpiegituraren Erregelamendua onartzen duen 1995eko abenduaren 28ko 2.200/1995 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera eskumena duen laborategi batek eginak. Horrez gain, eskaeran honako informazioa emango da:

- Hondakinaren jatorria eta sorburua.
- Hondakinaren ekoizpen prozesuari buruzko informazioa (lehengaien eta ekoizpenen deskripzioa eta ezaugarriak).
- Hondakinaren konposaketa, edo lixibatzeko modua.
- Kolorea, usaina, eite fisikoa edota hondakinaren itxurarekin zerikusia duen datu oro.
- Europako Hondakinen Zerrendaren arabera dagokion kodea.
- 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartzeko aukerarik baztertuta ez egotearen ziurtagiria.
- Tratamendurako azpiegiturretan izan beharreko arreta gehigarriak, halakorik behar denean.
- Aurreko informazioak aldatzea dakarren aldaketa oro.

Hondakinak frogatu egin beharko dira, arestian aipatutako informazio guztia lortu ahal izateko. Karakterizazioaren edukia eta beharrezko laborategi-frogei hedadura, hondakin motaren araberrakoa izango dira, oinarritzko karakterizazioaren eta adostasun frogei arteko erlazioa bezalaxe. Karakterizazioek ematen duten informazioa, kasuan kasuko azpiegitura motaren onarpen irizpideekin alderatu ahal izango da zuzenean. Gainera, karakterizazioek, bestelako gaiei buruzko informazioa ere eman dezakete, esate baterako, beste hondakinekin nahastuta isurtzeak eragingo dituen ondorioak. Honako hondakin motak bereiz daitezke:

a.1. Produkzio erregularreko hondakinak, prozesu berean:

Prozesu bat berean era erregularrean sortzen diren berrazko hondakin homogeneoak dira. Honako kasuetan gertatzen da hori:

- Hondakina sortzen duen instalazioa eta prozesua oso ezagunak direnean, eta prozesuan sartzen diren materialak eta prozesua bera, ondo definituak daudenean.
- Ekoizleak beharrezko informazio guztia eman, eta prozesuan gertatutako aldaketak (batez ere, prozesuan sartzen diren materialetan gertatutako aldaketak) Gipuzkoako Hondakinen Kontsultaziorako Zerbitzuei jakinarazten dizkienean.

Prozesua, normalean, instalazio bakar batean burutuko da. Hondakina, dena den, bestelako instalazioetatik ere etor daiteke, baldin eta fluxu bakar baten moduan zehaztu badaiteke eta, aurrez ezagunak diren mugen barruan, ezaugarri komunak baditu. Hondakin horien kasuan, gorago adierazitako funtsezko baldintzak beteko ditu oinarritzko karakterizazioak; bereziki, honako hauek:

- Berrazko hondakinen konposaketa sorta.
- Propietate nagusien sorta eta aldagarritasuna.

5.1. Caracterización básica.

La caracterización básica consiste en la recogida de toda la información necesaria sobre el residuo (tipo y origen, composición, humedad, pH y otras características si fuera necesario) y su comportamiento en las infraestructuras para su tratamiento de forma segura a largo plazo. Así mismo, se evaluará el residuo con respecto a valores límite y se detectarán las variables principales para las pruebas de conformidad y su posible simplificación por reducción del número de componentes a medir.

A tal fin, los usuarios estarán obligados a presentar un documento de solicitud de autorización, donde se facilite los datos de muestreo y analítico necesarios, realizados por un laboratorio competente de acuerdo al R.D. 2.200/1995, de 28 de diciembre, que aprueba el Reglamento de la Infraestructura para la calidad y Seguridad Industrial. Además, deberán acompañar en la solicitud la siguiente información:

- Fuente y origen del residuo.
- Información sobre el proceso de producción del residuo (descripción y características de las materias primas y de los productos).
- Composición del residuo, o comportamiento de lixiviación.
- Color, olor, forma física o cualquier otra circunstancia relacionada con su aspecto.
- Código conforme a la lista europea de residuos.
- Prueba de no estar excluido de admisión conforme al art. 15.
- Precauciones adicionales que, en su caso, deben tomarse en las infraestructuras de tratamiento.
- Cualquier tipo de cambio que implique variación en las anteriores informaciones.

Los residuos deberán someterse a prueba para obtener la información arriba mencionada. El contenido de la caracterización, la amplitud de las pruebas de laboratorio necesarias y la relación entre la caracterización básica y las pruebas de conformidad dependerán del tipo de residuo. Las caracterizaciones aportarán información que podrá compararse directamente con los criterios de admisión de cada clase pertinente de infraestructura y, además, podrán ofrecer información descriptiva sobre, entre otras cuestiones, las consecuencias de efectuar vertidos mezclados con otros residuos. Puede diferenciarse entre:

a.1. Residuos de producción regular en un mismo proceso:

Se trata de residuos específicos y homogéneos que se generan de forma regular en un mismo proceso cuando:

- La instalación y el proceso que generan el residuo son bien conocidos y los materiales de entrada en el proceso y el propio proceso están bien definidos,
- El productor aporta toda la información necesaria e informa a los Servicios del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de los cambios en el proceso (especialmente los referidos al material de entrada en el proceso).

El proceso tendrá lugar normalmente en una única instalación. El residuo también podrá proceder de instalaciones diferentes si puede determinarse como un flujo único con características comunes dentro de límites conocidos. Para estos residuos, la caracterización básica incluirá los requisitos fundamentales correspondientes anteriormente enumerados y, en particular, los siguientes:

- Gama de composiciones de los residuos específicos.
- Gama y variabilidad de las propiedades características.

— Aldizka-aldizka frogatu beharko diren aldagai nagusiak.

Hondakina prozesu bat berean baina instalazio desberdinetan sortu bada, ebaluaketaren helmenari buruzko informazioa eman beharko da. Beraz, hondakinaren propietate nagusien sorta eta aldagarritasuna erakusteko behar hainbateko neurketa kopurua hartu beharko da. Orduan, hondakina karakterizatutzat joko da, eta ondoren, adostasun frogak bakarrik egin beharko zaizkio, baldin eta sortze prozesuetan aldaketa nabarmenak gertatu ez badira behintzat.

Prozesu berean eta instalazio berean sortutako hondakinei dagokienez, neurketen emaitzek hondakinaren propietateen aldaketa txikiak bakarrik jarrai ahal izango dituzte agerian, maila nabarmenean, gehieneko balio egokiekin alderatuta. Orduan, hondakina karakterizatutzat jo ahal izango da, eta ondoren, adostasun frogak bakarrik egin beharko zaizkio, baldin eta sortze prozesuetan aldaketa nabarmenak gertatu ez badira behintzat.

Hondakinen jomuga hondakinak elkartzeko edo nahasteko instalazioak badira, edota hondakinen bilketan sortutako hondakin mistoen transferentzia zentroetara bideratuko badira, asko alda daitezkeen propietateak izan ditzakete. Hori aintzat hartu beharko da oinarrizko karakterizazioa egiterakoan.

b.1. Produkzio irregularreko hondakinak:

Prozesu berean eta instalazio berean era erregularrean sortzen ez diren eta ondo karakterizatutako hondakinen fluxuan sartzen ez diren hondakinak dira. Horrela sortutako hondakin horien sorta bakoitza karakterizatu egin beharko da. Oinarrizko karakterizazioa egiterakoan, kasuan kasuko funtsezko baldintzak beteko dira. Sorta bakoitza karakterizatu egin beharko denez, kasu honetan ez da adostasun frogarik egin beharko.

Kontsortzioak, aurreko atalean deskribatutako informazioa jasotzen duen egunetik hasi eta hilabeteko epea izango du, gehienez, baimen eskaera erabakitzeke. Erantzuna baiezkua bada, onarpen kode bat emango zaio, baimenaren edukia gauzatzeko baldintzekin batera.

5.2. Lekuan bertan egiaztatzea, eta adostasuna ematea.

Azpiegiturara kargamendu batean iristen diren hondakinak, adostasun frogak egin zaizkien hondakin berak direla egiaztatzeke, eta hondakinekin batera doazen dokumentuetan ageri diren hondakin berak direla ziurtatzeko, egiaztapen azkarreko sistemak erabiliko dira. Hau da, kargamendua begiz ikuskatuko da, deskargatu aurretik eta ondoren, eta horrez gain, bidezkua izan daitekeen beste edozein ikuskapen egingo da.

Kontsortzioko teknikariek jasotako hondakinean berezkoak ez dituen elementuak antzematen badituzte:

— Hondakinaren karakterizazioa egingo dute, berezkoak ez diren elementuen kopurua zehazteko.

Bio-hondakinaren karakterizazio hori, Kataluniako Hondakinen Agentziaren Form Karakterizazioaren Protokoloari jarraituz egingo da.

Bio-hondakinak edonolako pisua duenak ere, karakterizazio bakar bat egingo da, eta guztiarekiko portzentajea aterako da.

— Hondakina eraman duenari horren berri emango zaio, txosten teknikoarekin batera. Eta txosten horretan, argazki-erreportaia bat hondakinaren karakterizazioari buruzko datuak jasoko dira.

Hondakinaren karakterizazioa honako maiztasunez egingo da:

— Bio-hondakinaren jatorri berria egiaztatzen den bakoitzean.

— Hilean behin, hondakinaren jatorri bakoitzeko lagin bat arteztuko da.

— Principales variables que deberán someterse a prueba periódicamente.

Si el residuo se produce en un mismo proceso en instalaciones diferentes, deberá darse información sobre el alcance de la evaluación. Por lo tanto, deberá tomarse un número suficiente de mediciones que muestren la gama y la variabilidad de las propiedades características del residuo. Este último podrá entonces considerarse caracterizado y posteriormente quedará sólo sujeto a las pruebas de conformidad, salvo en caso de cambios significativos en los procesos de generación.

En lo que se refiere a los residuos procedentes de un mismo proceso efectuado en una misma instalación, los resultados de las mediciones podrán poner de manifiesto solamente ligeras variaciones de las propiedades del residuo a un nivel significativo en comparación con los valores límite apropiados. El residuo podrá entonces considerarse caracterizado y posteriormente tan solo se someterá a pruebas de conformidad, salvo en caso de cambios significativos en los procesos de generación.

Los residuos cuyo destino sean las instalaciones para el agrupamiento o la mezcla de residuos, centros de transferencia o de flujos de residuos mixtos procedentes de la recogida de los mismos, pueden tener propiedades que varíen considerablemente. Este extremo deberá tenerse en cuenta en la caracterización básica.

b.1. Residuos de producción irregular:

Se trata de residuos que no se generan de forma regular en un mismo proceso en una misma instalación y que no forman parte de un flujo de residuos bien caracterizado. Cada lote producido de dichos residuos tendrá que caracterizarse. La caracterización básica incluirá los requisitos fundamentales correspondientes. Puesto que cada lote tendrá que caracterizarse, no será necesario efectuar ninguna prueba de conformidad.

El Consorcio en el plazo máximo de un mes, a partir de recepción de la información descrita en el apartado anterior, deberá resolver la solicitud de autorización. En caso afirmativo, se adjudicará un código de aceptación, así como los términos de la misma.

5.2. Verificación in situ y conformidad.

Para confirmar que los residuos que lleguen a la infraestructura en un cargamento son los mismos que han sido sometidos a pruebas de conformidad y coinciden con los reflejados en los documentos que los acompañan, se aplicarán métodos de comprobación rápida, que consistirán en una inspección visual del cargamento antes y después de su descarga, así como cualquier otro que se considere necesario.

Cuando los técnicos del Consorcio detecten en el residuo recibido elementos impropios, se

— Realizará una caracterización del residuo, para determinar la cantidad de impropios.

La caracterización del biorresiduo se realizará según lo establecido en el Protocolo de Caracterización de Form de la Agencia Catalana de Residuos.

Independientemente del peso del biorresiduo se realizará una única caracterización y se realizará el porcentual sobre el total.

— Se notificará al aportante del residuo acompañado de un informe técnico donde se incluirá un reportaje fotográfico y los datos de caracterización del residuo.

Se realizarán caracterizaciones del residuo:

— Cada vez que se confirme una nueva procedencia del biorresiduo.

— Con carácter mensual se caracterizará una muestra de cada origen de residuo.

— Eta, berezkoak ez diren elementu asko antzematen direnean, karakterizazio puntualak egingo dira.

— Se realizarán caracterizaciones puntuales en los casos que se observe una gran cantidad de impropios.

KARAKTERIZAZIO MATRIZEA: BIO-HONDAKINA

LAGINA ZBK:				
PISU TOTALA:				
% TOTALA:				

PROCEDENCIA: /JATORRIA:		KARAK.-GUNEA:		
FECHA DESCARGA:		KARAK.-DATA:		
ZATIKIA	AZPIZATIKIA		PISUA (Kg.)	(%)
BIO-HONDAKINA	Maneiatu gabeko janari-hondarrak	Animalia-jatorria		
		Landare-jatorria		
	Maneiatutako janari-hondarrak	Animalia-jatorria		
		Landare-jatorria		
	Inausketak eta lorazaintza			
	Poltsa konpostagarriak			
FRACCION VEGETAL/ LANDARE-ZATIKIA	Zelulosa xurgagarria			
ZATIKIA:			PISUA (Kg.)	(%)
PAPERA-KARTÓIA				
BEIRA				
PLASTIKOAK				
METALAK				
BRICKAK				
GAINERAKOA				
	GUZTIRA:			
OHARRAK:				
Karakterizazioan parte hartu dutenak:				
Karakterizazioaren arduraduna:				

MÁTRIZ DE CARACTERIZACIÓN: BIORRESIDUO

MUESTRAN:			
PESO TOTAL:			
% TOTAL:			
PROCEDENCIA:		LUGAR CARACT:	
FECHA DESCARGA:		FECHA CARACT:	
FRACCIÓN	SUBFRACCIÓN	PESO (Kg.)	(%)
MATERIA ORGÁNICA PUTRESCIBLE (MOP)	Restos de comida sin cocinar	Animal	
		Vegetal	
	Restos de comida cocinada	Animal	
		Vegetal	
	Podas y jardinería		
	Bolsas Compostables		
	Celulosa Absorbente		
FRACCIÓN		PESO (Kg.)	(%)
PAPEL-CARTÓN			
VIDRIO			
PLÁSTICOS			
METALES			
BRICKS			
RESTO			
	TOTAL :		
OBSERVACIONES:			
Asistentes a la caracterización:			
Responsable de la Caracterización:			

6. Hondakin onartezinak.

Segidan aipatuko diren hondakin motak, edo honako ezaugarri hauetakoren bat duten hondakinak ez dira inolaz ere onartuko, ez eta titullarrak alde aurreko baimena badu ere:

- Era guztietako ontziak (brikak, latak,), kristala, kartoi garbi zein zikina, paper garbi zein zikina.
- Animalia hilak, etxeokak zein etxeokak ez direnak.
- Animalia larruak.
- Haragi hondakinak.
- Eraikuntza obretako hondakinak, eta eraikuntza obra txikiak eta etxebizitzien konponketako hondakinak, baldin eta hondakin horien guztien tratamendua Kontsultazioaren planteatzen arautzen ez bada behintzat.
- Ibilgailu abandonatuak edota erabilpenik ez dutenak.

6. Residuos no admisibles.

No se admitirán, en ningún caso, ni aún cuando su titular dispusiera de autorización previa, los tipos de residuos que se especifican a continuación o que presenten alguna de las siguientes características:

- Todo tipo de envases (bricks, latas), cristal, cartón sucio, limpio, papel sucio o limpio.
- Animales domésticos o no domésticos muertos.
- Pieles de animales.
- Residuos cárnicos.
- Escombros de obras de construcción, residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria, salvo que se regule su tratamiento en plantas del Consorcio.
- Vehículos abandonados o fuera de uso.

— Erabilpenik gabeko pneumatiko osoak edo zatituak, garen gordailuan babes elementu gisa erabiltzen direnak eta bizikleten pneumatikoak izan ezik.

— Deskargatzeko momentuan pertsonentzako, gauzentzako edo ingurumenerako arriskutsua eragin lezaketen hondakinak, edota instalazioetako lanen antolakuntzan arazo larriak sor ditzaketanak.

— Bolumen trinkoetan edo blokeetan aurkezten diren eta transferentzia estazioetako ekipoen bereizteko eta gero berriz trinkotzeko ahalmena gairatzen duten hondakinak; eta betiere, 1 m x 1 m x 1 m-tik gorako neurriak dituztenak.

— Hauts itxurako hondakin solidoak edota kutsadura edo toxikotasun arriskua eragin lezaketen lohiak.

— Hondakinei buruzko 10/1998 Legean hondakin arrisku-tsu gisa definitutakoak.

— Hiri hondakintzat har ez daitezkeen hondakin sanitarioak.

— Hondakin erradioaktiboak.

— Animalia jatorrikoak diren eta berariazko araudi sektoriala bete behar duten hondakinak, hala nola arriskuko material espezifikoak edo bestelakoak.

— Abelazkuntzako hondakinak.

— Ignizio egoeran aurkezten diren hondakinak.

— Giro tenperatura baino 10.°C gehiagoko tenperaturaren dauden hondakinak.

— Berariazko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera kudeatu beharreko hondakinak, baldin eta kudeaketa horretan, ingurumenaren eta segurtasunaren ikuspegitik begiratuta, hiri hondakinei buruz exijitzen diren betekizunez bestelakoak bete behar badira.

— Bolumen trinko edo blokeetan aurkezten diren eta gero trinkotzen zailak diren hondakinak.

— Oro har, kudeaketa azpiegiturretan garatzen diren prozesuekin bateraezinak diren ezaugarriak edo izaera duten hondakinak.

— Hondakinak zabortegean biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen 2009ko apirilaren 24ko 49/2009 Dekretuak 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartezinak diren gainerako hondakin guztiak.

7. Hondakin onargarriak emateko baldintzak.

Entitate lokalek, honako Erregelamendu honetan ezarritako baldintzetan eman beharko dizkiote hondakinak Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioari.

Etxeetako hondakinen kasuan eta sortzaile handiek (supermerkatuak, jatetxeak, jangelak,) eragindako hondakinen kasuan, bereizita biltzeko exiji dezake Kontsurtzioak.

Kontsurtzioak, plantaren premien arabera zuzendu ahal izango du bio-hondakina hartuko duen planta.

Bio-hondakina ez da sekula jatorrian pilatuko, ez trinkotuko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak aldeztu aurretik berariazko baimen idatzia eman ez bada. Izan ere, baimen horretan ezarritako baitira bio-hondakina pilatzeko eta trinkotzeko baldintzak.

Dena den, aparteko kasuren batean, eraginkortasun, ekonomia eta ingurumen arloko eragimenek hala agintzen dutenean, hondakinak honako Erregelamendu honetan aurreikusitako instalazioez bestelakoetan ematea baimendu dezake Kontsurtzioak, baldin eta, aldeztu aurretik, arrazoi horiek teknikoki justifikatzen dituen txostena egiten bada.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren lurralde esparruko entitate lokalez kanpoko erabiltzaileek, kasuan kasuko baimenean Kontsurtzioak ezarritako instalazioetan utziko dituzte hondakinak.

— Neumáticos fuera de uso enteros o troceados, con exclusión de los neumáticos que se utilicen como elementos de protección en el Depósito de rechazo y de los neumáticos de bicicleta.

— Residuos que, en el momento de la descarga, puedan producir riesgo a las personas, las cosas o el medio ambiente o causar trastornos importantes en la organización de los trabajos de las instalaciones.

— Residuos que se presenten en forma de volúmenes compactos o bloques, resistentes a la capacidad de desagregación y posterior compactación de los equipos de las Estaciones de transferencia. y de dimensiones superiores a 1m x 1m x 1 m.

— Residuos sólidos pulverulentos o fangos que presenten riesgos de contaminación o toxicidad.

— Residuos peligrosos, tal como se definen en la Ley 10/1998 de Residuos.

— Residuos sanitarios no asimilables a urbanos.

— Residuos radioactivos.

— Residuos de origen animal sujetos a normativa sectorial específica, tales como materiales específicos de riesgo u otros.

— Residuos ganaderos.

— Residuos que se presenten en estado de ignición.

— Residuos presenten una temperatura superior en 10.° C a la temperatura ambiente.

— Aquellos residuos cuya gestión esté regulada en normativa sectorial específica y esté sujeta a requerimientos especiales desde el punto de vista ambiental o de seguridad y salud, diferentes de los exigidos para residuos urbanos.

— Los residuos presentados en volúmenes compactos, o bloques, resistentes a la compactación.

— En general, residuos que poseen naturaleza y/o características incompatibles con los diferentes procesos que se desarrollan en las infraestructuras de gestión.

— Cualesquiera otros no admisibles conforme a lo dispuesto en el art. 6 del Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

7. Condiciones de entrega de los Residuos admisibles.

Las Entidades Locales deberán entregar los residuos urbanos al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en las condiciones que se establecen en el presente Reglamento.

El Consorcio podrá exigir que se realicen recogidas diferenciadas para los casos de residuo domiciliario y residuo de grandes generadores (supermercados, restaurantes, comedores).

El Consorcio podrá dirigir la planta de destino del biorresiduo según necesidades de planta.

El biorresiduo nunca se almacenará en origen ni se podrá compactar sin autorización previa, expresa y escrita del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en la que se determinarán las condiciones de almacenamiento y compactación.

Previo informe técnicamente motivado, por razones de eficacia, economía y eficiencia ambiental el Consorcio podrá excepcionalmente autorizar entregas de residuos en instalaciones diferentes a las previstas en el presente Reglamento.

Los usuarios distintos de las Entidades Locales del ámbito territorial del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, entregarán los residuos en las instalaciones establecidas por el Consorcio en la correspondiente autorización.

Ez da onartuko kasuan kasuko hondakinak garraiatzeko bereziki prestatutako ibilgailuetan aurkezten ez den hondakinik.

Era berean, instalazioetan ezin izango da sartu ohikoan likidoak edo lixibiatuak isurtzen dituzten ibilgailuak, edota hondakinak sakabanatzen dituztenak. Ez onartze hori, ukitutakoei jakinaraziko zaie berehala, ez onartzearen arrazioiak agirien bitartez frogatuz.

Hondakinen garraioa eta deskarga baldintza desegokietan egitearen ondorioz instalazioetan, ingurumenean edota hirugarren pertsonengan eragindako istripu eta kalte guztien erantzule bakarra hondakinen garraiolaria izango da; eta ordeko izaeraz, hondakinen titularra.

Hondakinen garraioa eta deskarga baldintza desegokietan egitearen ondorioz instalazioen sarreran edo barruan hondakinak isurtzen badira, garraiolarien ardurak izango da hondakin horiek biltzea eta kentzea. Zerbitzuaren kudeatzaileak, isur daitezkeen hondakinak biltzeko eta jasotzeko behar diren bitarteko eta lanabesak izan beharko ditu eskueran.

Garraiolaria uko egiten badio beraren erruz isuritako hondakinak jaso eta garbitzeari, lan hori plantako arduradunak egingo du, baina eragiketa horrek eragindako kostuak hondakinaren jabe edo titularri egotzi ahal izango dizkio; baita karakterizazio gastuak ere, batez ere bio-hondakina trinkotzeak eta bertatik kentzeak eragindako gastuak, eta isurketak edota balorizazio energetikoak eragindakoak.

8. Egutegia eta ordutegia.

Konpostatze plantatzen lan egutegia GHKren web orrian argitaratuko da urtero.

Hondakinak, plantako unean uneko arduradunaren aurrean deskargatuko dira beti.

Hondakinak hartzeko ordutegia, honako hau izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 8:00-13:00 eta 15:00-18:00.
- Larunbatean: 8:00-12:00.
- Igande eta jaiegunetan, itxia.

9. Sarrera kontrola.

Lapatxeko plantako sarrera kontrola, zabortegiko baskulan egiten da. Hondakinak plantara eramaten dituzten garraiolariek, Urola Erdiko Lapatx Zabortegi, S. A.ko sarrera seinaleei eta langileen oharrei kaso egin beharko diete.

10. Ezpurutasunak deskargan.

Hondakinen Kontsurtzioak:

– Deskargako garaian ezpurutasunak antzematen diren lehendabiziko aldian, GHKko zerbitzu teknikoek txosten bat bidaliko dute, gertatutako gorabeheren berri emanez.

– Deskargako garaian ezpurutasunak antzematen diren bigarren aldian, Erregelamenduko 32. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

Plantaz kanpoko jendeak hondakina plantan ezin izango du manipulatzea, inolaz ere, berezkoak ez dituen elementuak kentzeko.

Bio-hondakin desegokia bidezko tratamendu-guneetara garraiatzeko kudeaketak eragindako kostua aurreikusiko da.

11. Lapatxeko plantaren kudeaketari buruzko kontrol berezia.

Erregelamenduko 3. Kapituloko betebeharez gain, honako kudeaketa informazioa egingo da:

- Egunero sartzen den bihondakinaren txostena.
- Hileroko produkzio kontrola.

No se admitirá la entrega de residuos que no sean presentados en vehículos acondicionados especialmente para el transporte de los mismos.

Tampoco se admitirá el acceso a las instalaciones de aquellos vehículos que sistemáticamente presenten pérdidas de líquidos o de lixiviados o dispersiones de residuos. La no admisión, debidamente documentada, se comunicará inmediatamente a los afectados.

De cualquier accidente o afección causado a las instalaciones, al medio ambiente, o a terceros, como consecuencia de unas deficientes condiciones en el transporte y descarga de los residuos, será responsable, aún dentro del recinto de las instalaciones, exclusivamente al transportista del residuo y subsidiariamente el titular del mismo.

Si se produjeran derrames de residuos en los accesos o en el interior de las instalaciones, como consecuencia de las deficientes condiciones de transporte y descarga de los mismos, los transportistas serán responsables de su recogida y retirada. El gestor del Servicio deberá tener a disposición los medios y útiles necesarios para la recogida y retirada de los residuos que pudieran haberse vertido.

En caso de que el transportista se negara a retirar y limpiar los residuos vertidos por su causa, el responsable de las plantas procederá a realizar dicho trabajo, pudiendo imputar los costes correspondientes a dicha operación al propietario o titular del residuo y los costes de caracterización, en particular los costes de compactación, la retirada del biorresiduo y los costes de vertido y/o valorización energética.

8. Calendario y horario.

Anualmente, se publicará en la página web de GHK el calendario de trabajo de la planta de compostaje.

Las descargas se realizarán siempre en presencia del responsable de la planta en cada momento.

El horario de recepción de residuos es el siguiente:

- De lunes a viernes: De 8:00 a 13:00 y de 15:00 a 18:00.
- Sábados: De 8:00 a 12:00.
- Domingos y festivos cerrado.

9. Control de accesos.

El control de acceso a la planta de Lapatx se realiza en la báscula de entrada del vertedero de Lapatx. Los transportistas que lleven el biorresiduo a la planta de compostaje deberán atender las indicaciones de acceso y circulación del personal de Urola-Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.

10. Impurezas en la descarga.

El Consorcio de Residuos:

– En la primera observación de impurezas en la descarga, se enviará desde los Servicios Técnicos de GHK una notificación con las incidencias ocurridas.

– En la segunda observación de impurezas en la descarga, se aplicará lo dispuesto en los artículos 32 y siguientes del Reglamento.

En ningún momento personal ajeno a la planta podrá manipular el residuo en planta con el fin de retirar los impropios.

Prever los costes de gestión del traslado del biorresiduo inadecuado a los puntos de tratamiento.

11. Control específico de la gestión de la planta de Lapatx.

Además de las obligaciones del Capítulo 3 del Reglamento, se elaborará la siguiente información de gestión:

- Informe diario de entradas de biorresiduo.
- Control de producción mensual.

- Hileroko kontrol ekonomikoaren txostena: Platako ustia-pen-esplotazioa eta egindako inbertsioak.
- Prebentzio ikuskapenaren txostena.
- Jendarteratze bisiten hileroko txostena.
- Hondakin arriskutsuen produkzioaren urteroko txostena.

IV. ERANSKINA

AKEIKO PLANTA KUDEATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1. Helburua.

Eranskin honen helburua da Debagoiena mankomunitateak hartzen duen lurralde esparruan hondakinak biltzeko eta tratatzeko jarduerak arautzea.

2. Onartzea.

Hondakinen onarpena Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari eskatuko zaio, Erregelamendu honetako 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak, 2009ko uztailaren 17tik aurrera bere gain hartuko du Debagoienako hiri hondakinen transferentzia lanen eta bideraketa sareko garraio lanen eskumena, Gipuzkoako gainerakoan sortzen diren hondakinena bezalaxe. Eskumen hori, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU (aurrerantzean, GHK, SAU) entitatearen bitartez gauzatuko du.

Hori horrela, Debagoiena mankomunitateak GHK, SAU entitatearen esku utziko du Akein (Arrasate) dagoen transferentzia estazioko instalazioen erabilpena.

3. Baldintza orokorrak.

Mankomunitateak eta bilketa zerbitzua kudeatzeko kontratatutako enpresek, GHK, SAU entitateak erabakitako irizpideak errespetatu beharko dituzte hondakinak deskargatzeko eragiketetan.

Hala eta guztiz ere, Debagoiena mankomunitateak, materialak denboraldi batean biltegitratzeko erabili ahal izango ditu instalazioak; eta baskula, berriz, beste zerbitzuekin pisatze kontrajarriak egiteko, baldin eta zeregin horiek transferentzia eta garraio zerbitzuaren martxa ona oztopatzen ez badute eta, betiere, aldez aurretik GHK, SAU entitateari berorren berri eman bazaio. Honek, jarduera horiek instalazioetan egiteko baimena eman beharko du, ezartzen diren segurtasun protokoloak beteko direla bermatzearen. Hori horrela, AKEI instalazioetan sartzeko eskatzen zaien informazio edota dokumentazio oro eman beharko dute.

Hondakinak AKEIko hobian isuri nahi dituen ibilgailu orok, aldez aurretik baskulatik pasa beharko du derrigorrez, ibilgailu horrek garraiatzen duen tona kopurua benetan neurtzeko eta kontrolatzeko. Eta GHK, SAUK, pisu hori erregistratu egingo du dagokion kontrola egiteko.

GHK, SAUK kontratatzen duen enpresa esleipenduna bera ere kanpoko erabiltzailetzat joko da, eta beraz, onarpen baldintza, erabiltzeko arau, erregistro, pisatze eta zaintza baldintza berak bete beharko ditu, GHK, SAU edo Mankomunitateaz kanpo egindako kontratuetatik datozen hondakinak hobira bota edo inausketa-depositura hustu nahi dituenean. GHK, SAU entitateak aparteko arretaz begiratu du enpresa esleipendunak aipatutako baldintzak betetzen dituen ala ez, Akeiko plantaren kudeaketa normalarekin eta GHK, SAUK ezarritako helburuekin zerikusirik ez duten interesei erantzunez, instalazioetan gehiegi-keriazko erabilerarik burutu ez dadin.

Kanpoko erabiltzaileek instalazioak erabiltzeko ordutegia GHK, SAUK finkatuko du. Hala ere, hasiera batean behintzat, honakoa izango da:

07:30 – 14:00, astelehenetik ostiralera, urte osoan (baita abuztuan ere).

- Informe control económico mensual: Costes de explotación asociados a la planta e inversiones realizadas.
- Informe de inspecciones de prevención.
- Información mensual de visitas divulgativas.
- Informe anual de producción de residuos peligrosos.

ANEXO IV

CONDICIONES PARTICULARES DE GESTIÓN DE LA PLANTA DE AKEI

1. Objeto.

El presente Anexo regula las actividades de Tratamiento y Recogida del Residuo en el ámbito territorial que abarca la Mancomunidad de Debagoiena-Alto Deba.

2. Admisión.

La admisión se solicitará al Consorcio de Residuos según lo establecido en el artículo 13 de este Reglamento.

El Consorcio de residuos de Gipuzkoa asumirá la competencia de las labores de transferencia y transporte en alta de residuos urbanos en Debagoiena, al igual que en el resto de Gipuzkoa, a partir del 17 de julio de 2009, competencia que ejercerá a través de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU (en adelante, GHK, SAU).

Para ello, la Mancomunidad de Debagoiena cede a GHK, SAU el uso de las instalaciones de Estación de Transferencia sitas en Akei (Arrasate).

3. Condiciones Generales.

La Mancomunidad y empresas contratadas para la gestión en baja deberán respetar los criterios determinados por GHK, S.A. en las operaciones de descarga.

No obstante, la Mancomunidad de Debagoiena podrá utilizar las instalaciones para almacenaje temporal de materiales, y la báscula para pesajes contradictorios de otros Servicios, siempre que no afecten a la correcta prestación del Servicio de transferencia y transporte, previa información a GHK, SAU, que deberá autorizar la entrada en las instalaciones para dichas actividades a fin de asegurar el cumplimiento de los protocolos de seguridad que se establezcan, y en este sentido proporcionarán cuanta información y/o documentación le sea requerida para el acceso a dichas instalaciones de AKEI.

Todo vehículo que pretenda verter en el foso de AKEI, previamente deberá pasar por la báscula para un control efectivo y cuántico del tonelaje que transporte dicho vehículo, registrando GHK dicho peso para su control.

Se considerará también usuario externo, y estará sujeto a las mismas condiciones de aceptación, normas de uso, registro, pesaje y vigilancia, a la propia empresa concesionaria que contrate GHK, SAU, cuando pretenda descargar residuos a la fosa o al depósito de poda que provengan de contratos ajenos a GHK, SAU o a la Mancomunidad. El cumplimiento de estas condiciones por la empresa concesionaria será objeto de especial seguimiento por parte de GHK, SAU, para evitar usos abusivos de las instalaciones que respondan a intereses ajenos a la normal gestión de la planta de Akei y establecidos por GHK SAU.

GHK, SAU fijará el horario de uso de las instalaciones para usuarios externos, que inicialmente en el siguiente:

07:30-14:00, de lunes a viernes, todo el año (incluido agosto).

Larunbat, igande eta jaiegun ofizialekin, itxia. Porresko San Martín eguna ez da jaieguntzat joko, ondorio hauetarako. Jaiegun lokala, Arrasate herriari dagokiona izango da.

Ordutegi horretaz aparte, kanpoko erabiltzaile bat bera ere ezin izango da instalazioetan sartu, GHK, SAUK berariaz baimentzen ez badu behintzat. Debagoiena mankomunitateko zerbitzuek bakarrik izango dute baimen hori.

GHK, SAU entitateak, Hondakinen transferentzia, garraio eta tratamendurako zerbitzu publikoa kudeatzeko Erregelamenduan ezarritako xedapenen arabera kontrolatuko ditu aipatutako deskarga-lanak. Edozein kasutan ere, GHK, SAUK bermatuko du baimendu gabeko erabiltzaile bat berak ere ez duela isurketarik egingo, ez hobira, ezta inausketa-depositura ere.

GHK, SAUK bermatuko du transferentzia plantaren nahiz inausketa-deposituaren erabiltzaileek betetzen dituztela zerbitzu horien erabilera-arau guztiak (hondakin onargarriak, kantitateak, eta abar).

GHK, SAUK, Akeiko plantako zerbitzuek behar dituzten zirkular eta jakinarazpen guztiak egin eta hedatuko ditu, zerbitzu horiek indarrean dauden erabilera-arauen berri izan dezaten.

GHK, SAUK, aipatutako zerbitzuak behar ez bezala erabiltze-ari buruzko diziplina-ahalmena izango du beti; eta, arrazoizkotzat jotzen badu, bidezko zigor neurriak ezarriko dizkie erabiltzaileei.

GHK, SAUK ezarriko ditu inausketako materiala eta lorategien zaintzan sortutako hondakinak Akeiko plantara eramateko baldintzak; eta erabiltzaileek, ezarritako eta exijitutako baldintza guztiak bete beharko dituzte. Gainera, GHK, SAU entitateak, gutxieneko baldintzak betetzen ez dituen hondakina ez onartzeko eskubidea izango du.

Akeiko plantako erabiltzaileek (Debagoiena mankomunitatea barne), udalek, zerbitzu batzuei eta besteei atxikitako langileek, bai bertakoek bai kontratupekoek, eta erabiltzaile guztiek, oro har, Laneko Arriskuen Prebentzio gaietan GHK, SAUK ezarritako arauak bete beharko dituzte. Hain zuzen ere, erabiltzaileen, eta plantako nahiz instalazioetako langileen segurtasuna bermatze aldera ezarritako baldintza eta betekizun guztiguztiak bete beharko dituzte, finkatutako segurtasun-protokoloak zehatz-mehatz betez. Gainera, instalazioetara sartzeko eskatzen zaien informazio edota dokumentazio oro eman beharko dute beti.

Cerrado los sábados, domingos y festivos oficiales. No se considera festivo a estos efectos la festividad de San Martín de Porres. El día festivo local será el correspondiente al municipio de Arrasate.

Ningún usuario externo podrá acceder a las instalaciones fuera de este horario, salvo que GHK, SAU lo autorice expresamente. Únicamente los servicios de la Mancomunidad de Debagoiena dispondrán de esa licencia.

GHK, SAU controlará las labores de descarga conforme a las determinaciones del Reglamento de Gestión del Servicio Público de Transferencia, Transporte y Tratamiento de Residuos. En cualquier caso, GHK, SAU asegurará que ningún usuario no autorizado realice vertidos a la fosa ni al depósito de poda.

GHK, SAU asegurará que las normas de uso tanto de la Planta de Transferencia como del Depósito de poda que se dicten (residuos admisibles, cantidades, etc.), sean acatadas por los usuarios de estos Servicios.

GHK, SAU elaborará y difundirá las circulares o notificaciones que sean necesarias a los usuarios de los Servicios de la Planta de Akei, para que conozcan las normas de uso vigentes.

GHK, SAU se reserva la potestad disciplinaria relativa al mal uso de estos Servicios, y tramitará si lo considera justificado, las medidas sancionadoras pertinentes a los usuarios.

GHK, SAU dispondrá las condiciones de aportación a la Planta de Akei de material de poda y restos de jardinería, debiendo cumplir los usuarios las condiciones impuestas y exigidas, reservándose GHK, SAU el derecho a rechazar el residuo si considera que no cumple con las condiciones mínimas exigidas.

Los usuarios de la Planta de Akei, incluida la Mancomunidad de Debagoiena, Ayuntamientos y personal afecto a sus diferentes servicios, tanto propios como contratados, y todo usuario en general, quedará sujeto a las normas fijadas por GHK SAU en materia de Prevención de Riesgos Laborales, debiendo cumplir todos los requisitos y exigencias que se establezcan de cara a garantizar la propia seguridad de los usuarios, operarios de la planta e instalaciones en general, cumpliendo estrictamente los protocolos de seguridad establecidos debiendo proporcionar cuanta información y/o documentación le sea requerida para el acceso a las mismas.